



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-04-03

VIURTEA 1.398.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

XABI FERNANDEZ BELAKO EUROPAKO TXAPELDUNA

«Garaipenak Pekingo Olinpiar Jokoetarako konfiantza eman digu»

IBARRA Mallorcan jokatu berri duten Europako Txapelketan urrea lortu du Iker Martinezekin batera

PUNTAN «Garrantzitsuena eta politena urte asko egin arren oraindik maila ona ematea da», dio ibartarrak




Ezker-eskuin: Jokin Bildarratz, Enrique Portu, Enrique Azurza, David Azurza eta Andoni Iturzaeta... E. EZEIZA

JABIER BELLO-PORTU EZAGUTZERA EMATEKO

TOLOSA Musikari tolosarraren lehen ekarpena aurkeztu dute, bere lana zabaltzeko helburuz; etzi, kontzertua antolatu dute Santa Klaran

Juanma Lillok hartuko du Jose Ramon Eizmendiren postua Realeko entrenatzaile bezala

TOLOSA Azkeneko hiru partidatan galdu egin du Realak eta Eizmendi ikaztegiarrari Real B taldera bueltatzeari eskaini dio Badiolak



Guztira lau logela izango ditu ostatuak, guztiak dezberdinak dira. N. URBIZU

Taberna-jatetxea, denda eta ostatua martxan jarriko ditu Udalak

IKAZTEGIETA Udaletxearen azpiko lokala egokitu dute; baldintzak boletin ofizialean azalduko dira





Jabier Bello-Portu kultur egitasmoaren aurkezpenean, ezker eskuin: Enrique Azurza, Enrique Bello, Jokin Bildarratz, David Azurza eta Andoni Iturzaeta. E. EZEIZA

Javier Bello-Portu kultur egitasmoa eta bere lehen ekarpena aurkeztu dute

Kultura » Musikari tolosarren lana zabaltzea da xedeetako bat; honekin lotuta kontzertua izango da larunbatean, Santa Klaran.

ESTI EZEIZA

Jabier Bello-Portu kultur egitasmoa publikoki aurkeztu zuten atzo goizean. 2007ko martxoan sortu zen elkarte, hau da, musikaria hil eta hiru urtetara. Tolosako musikariaren omenezko taldea bera ezagutzera ematearekin batera, duela egun gutxi kaleratu duten diskoaren berri ere eman zuten agerraldian.

Tolosan hain ezaguna izan ez den pertsona baten lana bildu dute elkartekok. Tolosar askok ezagutzen ez badute ere, Jokin Bildarratz alkateak agertu bezala, «Bello-Portu Tolosaren historiari oso lotua dago, pertsona bezala, nahiz Tolosak musikan izan duen zeresanagatik». Bere esanetan, Tolosak, egun ohore bat du, Javier Bello-Porturen omenezko taldea sortzean. Ekimen horren bultzatzaile nagusiak diren Enrique eta David Azurza anaiak nahiz Enrique Bello izan ziren atzoko aurkezpenean.

CD berria kalean

Egitasmoarekin batera, Bello-Porturen abesbatza lan guztiak bildu dituzte, ondoren zabaltzeko ahal izateko musikariaren lana. Hala, oraindik ere argitaratu gabe zeuden zenbait obra bildu dituzte CD batean. Hau Eusko Jaurilaritzaren,

Exmaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako nahiz Azkoitiko udaletxeen laguntzarekin grabatu dute. Kantu bilduma hau aurkezteko asmoz hainbat kontzertu eskainiko dituzte datozen hilabeteetan. Baina lehendabizikoa Tolosan bertan izango da, larunbat honetan hain zuzen ere. Ekitaldia Santa Klara elizan izango da, 20:15ean.

Kea ahots taldeak abestu ditu kantuak diskorako, eta zuzendari lanetan, ohikoa den bezala, Enrique Azurza aritu da. Gainera, tolosarrak oso ongi ezagutzen du Bello-Porturen lana. Disko hau garai eta genero ezberdinen artean egiten den ibilbide bat da. Erljio inguruko kantuak, euskal folkloreakoak eta beste zenbait egileren doinuen harmonizazioak aurki daitezke bertan. Gainera, kantuetako barutzak behin ere argitaratu gabeak dira.

Bello-Porturen lanak zabaltzeko Euskal Herriko eta Espainiako abesbatza federatuak erabiliko dituzte. Honebestez, beraiek abestu ahal izango dituzte tolosarrak egindako kantuak. Gainera, elkartekoen ustetan, horretarako tresna baliagarri izango da Tolosako Abesbatza Lehiaketa.

Kultur egitasmo berria

Aipatu bezala, Javier Bello-Portu kultur egitasmoa 2007an jaio zen. Musika eta literatura izan ziren tolosarraren artearen ardatzak. Musikan, jotzaile, konpositore eta musikologo izan zen. Erromantizismo Literatura Unibertsala oso ongi ezagutzen zuen, baita

98ko belaunaldikoena ere. Non ikerketa garantzitsuak egin zituen, Azorin, Baroja, Unamuno eta beste hainbaten inguruan.

Jotzaile gisa, abesbatzetaiko zuzendari izan zen, baina langehiago egin zuen orkestrarekin. Bere ibilbidea puntu hauetan laburbildu daiteke. Alde batetik, egile euskaldunen musika zabaltzen egin zuen ahalgengian. Horretarako, bere kontzertuetan ohikoa zen egile hauen abestiak entzutea. Bere ibilbideko beste ezaugarrietako bat zen, nahiz eta bitarteko urriak izan, obra handiak antolatzeko gai izaten zela. Horien artean: *Meza handia* Mozarten Do minorrean, Rossiniaren *Stabat mater*, Pergole-si eta Dvorakena, Verdiren *Requiem*...

Efemerideak eta urteurrenak kontuan hartzen zituen, eta hauek erronka berriak gainditzeko erabiltzen zituen bere kontzertuetan, Iruñean batik bat.

Egitasmoaren helburuak

Javier Bello-Portu Kultur egitasmoaren helburuetako bat da «Portu maisuraren lana eta figura ezagutzera ematea». Honetarako, bere lanak eta datuak katalogatu nahi dituzte. Baina datu bilketa honez gain, tolosarrak egindako lanarekin jarraitu nahi dute, hau da, euskal musikariaren lanak zabaltzen. Hala, Tolosako musika taldeen inguruko informazioa bildu, mantendu eta zabaltzeko nahi dute elkartekokideak. Baita galduta dauden musika, literatura eta ikerketa lanak ere. Horregatik, Tolosako musikari-erriekin kontaktuan jarri dira dagoe-

neko, eta hauek gustura artu dute elkartekoen egitasmo berria.

Ekimenean parte hartzen ari diren lagunen beste xedeetako bat da, urtean behin musika jardunaldiak antolatzera. Hauek Bello-Porturen lanak izango litzazkete abiapuntu. Baita Tolosako beste konposatzaileena eta euskal musika erromantikoaena.

Erresumia proiektua

Tolosako musikaren inguruko datuak osatu behar direla uste dute elkartekok. Hau da, konposatzaileak, zuzendariak, jotzaileak, ongano-jotzaileak, kaperetako maisuak, kontzertuak, ekitaldiak... izendatu eta hauek datu base batean bildu. Ondoren, informazio hau guztia herriarrei helarazi ahal izateko. Honetarako euskaraz nahiz erdaraz irakurri ahal izango den webgune bat jarriko dute martxan.

Proiektu honen izena Erresumia da, gure artean, urretxindorra bezala ezaguna den txoria, hain zuzen ere. Honen arduraduna David Azurza da, eta Tolosako musikariaren artxiboan datu base bat egiteaz gain, musika hondarea katalogatzea du xede.

@ Iruñietan. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN Aste Santuko Argazki Lehiaketara aurkeztutako argazkiak ikusgai daude egunkariaren webguneko atal honetan. Bestalde, interesa duenak oraindik ere bidali ditzazke bere argazkiak eta lehiaketan parte hartu.

www.tolosaldeko-hitza.info

L Laburrak

Bordondantzako lehen entsegu gaur izango da

KULTURA » Sanjoanetarako ia bi hilabete falta diren honetan, urteroko ohiturari jarraituz, gaur hasiko dituzte Bordondantzako entseguak. Hauek Usabal kiroldegian izango dira, 20:30etik aurrera. Honela, hemendik aurrera, ostegunero egingo dituzte.

Angel Arberen erakusketa inauguratuko dute bihar

KULTURA » Bihar inauguratuko dute Angel Arberen lanekin osatutako erakusketa. Hau maiatzaren 10a bitartean egongo da ikusgai Aranburu Jauregian. Inaugurazio ekitaldia berriz, bihar iluntzean izango da, bertan izango delarik lanen egile bera.

1200eko konkistaz mintzatuko da Sagredo

KULTURA » Lizardi kultur elkarteak antolatutako hitzaldien baitan, Iñaki Sagredo izango da hizlari datorren astelehenean. 19:30etik aurrera, 1200eko konkistaren inguruan mintzatuko da aditua. Ekitaldia, ohikoa den bezala, Kultur Etxean izango da.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispensa: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 693930

GARRAJOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Apirilean ere pelikulak prezio baxugoan ikusteko aukera izango da

Zinema » Gaur eta bihar izango da filmetako bonuak erosteko aukera Leidor aretoko leihatiletan.

ERREDAKZIOA

Apirilean ere zinema bonuen salmenta jarri dute martxan. Hauek agortu bitartean, Leidorreko leihatilan eskuratu ahalko dira gaur 18:00etatik 21:00etara, eta bihar 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Prezioari dagokionez, edozein saioetarako balio duen bonuak 10 euro ordaindu beharko da; gaueko saioetarako balio duena 6 euro, eta arratsaldeko saioetarako balio duena ere 6 euro.

» APIRILEKO FILMAK

- **'El bosque del luto'**. Gaur ikusgai, zine forumean, 19:15ean eta 21:45ean, Naomi Kawaseren filma. Cannes 2007n epaimahaia-aren saria.
- **'La escafandra y la mariposa'**. Etzi, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean izango da ikusgai. Julian Schnabel zuzendariaren filma.
- **'Winkyren zaldia'**. Igandean, 17:30ean, haurrentzako filma.
- **'No es país para viejos'**. Igandean, 19:30ean eta 22:00etan, eta astelehenean, 20:30ean. Ethan eta Joel Coen zuzendariaren filmak 4 Oscar irabazi ditu.
- **'El asesinato de Jesse James por el cobarde Robert Ford'**. Andrew Dominik-en filma datorren astean ikusgai zine forumean.
- **'Países transformados'**. Jennifer Baichwalek zuzenduriko dokumentala estreinakoz Gipuzkoan. Kanadiar film onenaren saria jaso du Torontoan. Bereizmen handiko digitalean da proiektzioa.
- **'El silencio antes de Bach'**. Pere Portabellaren filma zine forumean izango da ikusgai hilaren 17an. Estreinaldia da Euskal Herrian.
- **'Persepolis'**. Marjane Satrapi eta Vincente Parouand dira animaziozko drama honen zuzendariak. Epaimahaia-aren saria jaso zuen Cannes 2007 urtean.
- **'O negro'**. Mark eta Nick Frances dira dokumental honen zuzendariak. Bereizmen handiko digitalean da proiektzioa, eta estreinakoz izango da ikusgai Gipuzkoan.
- **'La guerra de Charlie Wilson'**. Mike Nichols da film honen zuzendaria.
- **'Los pájaros'**. Alfred Hitchcock zuzendariaren film ezaguna zine forumean izango da ikusgai hilaren 24ean.
- **'En un mundo libre'**. Ken Loach da filmaren zuzendaria. Gidoi onenaren Osela saria jaso zuen Vene- zian, 2007an.

Dantza flamenkoa eta musika klasikoa bat eginik, Soledad Ruz-en eskutik



Flamenkoa gustuko duenarentzat hitzordu polita izango da bihar Leidorren. HITZA

«Flamenkoa hizkuntza bat da; sentimendu ugari eskaintzen ditu»

SOLEDAD RUZ » Flamenko dantzaria

IÑIGO TERRADILLOS

Soledad Ruzek, (Donostia, 1972) Euskal Herrian jaioa bada ere, odolean darama flamenkoa. Bere gurasoak Malagakoak (Espainia) dira, eta betidanik izan du hango kulturarekin lotura. Biharko ikuskizuna nolakoa izango den azaldu du.

Flamenkoa eta musika klasikoa uztartu dituzue. Nolatan?

Sara Varas dantzaria duela 3 urte hasi zen proiektu honekin. Hasieran, flamenkoari musika klasikoaren nahasketa txiki batzuk egin zitzaizkion, eta gero, pixkanaka, gero eta gehiago nahasten joan gara, instrumentu gehiago sartuz eta abar: klarineta, pianoa, biolina eta kaxa flamenkoa nahastuta, esaterako. Erabat berritzailea dela esan daiteke.

Zer moduzko harrera izaten ari da?

Jendea harrিতa geratzen da, berrria delako, eta asko gustatzen zaiela esaten dute.

Nolakoa izango da biharko ikuskizuna?

Bi zati izango ditu. Lehendabizi, *Tiempo* ikuskizuna eskainiko dute Donostiako amateur dantza eskolako 30 neska inguruk. Ondoren, gure txanda izango da; 9 musikari eta ni dantzari bezala ariko gara. Bigarren zati horretan flamenkoa berezkoa-edo dena egingo dugu, eta lehen aipaturiko musika klasikoa eta flamenkoaren arteko fusioa ere bai.

Odolean eraman behar den zer-baital da flamenkoa?

Egia da nik bezala odolean badaramazu errazagoa dela flamenkoa bizitzea. Bestela zailagoa da, baina posible da, noski. Euskal Herrian ezezaguna da flamenkoa; ez daki jendeak hizkuntza bat bezala dela

sentimendu ugari eskaintzen dituela, eta horretan ari gara, ezagutzera taratzen.

Donostian dantza eskola bat duzu. Flamenkoa geroz eta gehiagok ikasten al dute?

Bai. Gazte asko ari da sartzeko eskolan, urtetik urtera kopurua handituz doa. Gainera, herri askotako jendea etortzen da, asko agertzen dute, beraz, flamenkoarekiko interesa. Duela 10 urte zabaldu nuen dantza eskola Donostian.

Biharko emanaldia nori zuzendua dagoela esango zenuke?

Ikuskizun berritzailea da, eta ez nuke esango bereziki norbaiti zuzendua dagoenik. Dantza eskolaren kasuan bezala, herri askotatik espero dut jendea joatea. Hori gus- tatuko litzaidake.

Dantza » Bihar izango da Magia Flamenca Flamenko-Fusion taldearen ikuskizun berritzailea, Leidorren, 20:30ean.

IÑIGO TERRADILLOS

Dantza ikuskizun berezia izango da ikusgai bihar Leidor aretoan. Hain zuzen ere, Magia Flamenca Flamenko-Fusion taldeak emaldi berria aurkeztuko du Soledad Ruz flamenko dantzariaren gidaritzapean. 20:30ean hasiko da flamenkoa eta klasikoa uztartzen dituen ikuskizuna. Sarrerak 10 euroren truke eskuratu ahalko dira ohiko moduan: Leidorreko leihatilan (zine saioak dauden unean), Servikutxan, Telekutxan eta www.kutxa.net helbidean.

Artista handienekin

Soledad Ruzek Tony *El Pelao*, Joaquín el Grilo, Jose Racero, Jose Galvan, Andres Peña, Isabel Bayon, Maria del Mar Moreno, Dolores Gimenez, La Uchi, Chua Alba, Angela Cruces eta Mercedes Ruiz bezalako irakasle handiak izan ditu. Margot Escudero en eskolan hasi zen 11 urterekin, eta, lau urte geroago, 15 urte zituela eskaini zuen lehen saioa jendaurrean. Flamenko dantzari bezala Canela Pura eta Raices Gitanas bezalako taldeekin dantzatu du. Egund, Tago Gonzalez eta Sara Varas-ekin ari da *Evocaciones* ikuskizunean, eta *Tiempo* flamenko ikuskizun amateurra zuzentzen du. 10 urte egin ditu dantza irakasle bezala.

Klasikoa eta flamenkoa

Emanaldi berritzailea da, izan ere, dantza flamenkoa musika klasikoarekin nahastuko dute, hau da, biolina, klarineta, pianoa eta perkusioaren musikarekin, besteak beste; eta poesiak ere bere lekua izango du saioan zehar.

Biharko ikuskizunean eskainiko dituen koreografiak batekin Parisen izan berri den Eurodance Nazioarteko Dantza Lehiaketan bigarren saria lortu du dantzariak, Character izeneko atalean.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdigunean bi logelako etxebizitza. Egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

LANA

■ **Garbitzailea.** Emakume bat

behar da astean bitan kafetegia bat garbitzeko. 943 67 04 46.

GALDUTAKOAK

■ **Artzain-txakurra.** Aresoko mendian artzain-txakurra galdu da. Aurkitu duenak dei dezala 648 64 07 12 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

II. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren lehen kanporaketa izango da bihar

Aduna » Asvinenearen aretoan izango da; bost antzezlan ariko dira lehia eta horietatik bi pasatuko dira finalerdietara.

IMANOL GARCIA

Asvineneak antolatzen duen II. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren lehen kanporaketa izango da bihar. Adunan dagoen Asvinenearen aretoan bertan, 22:30ean hasiko da emanaldia. Bost talde lehiatuko dira lehen kanporaketa horretan eta finalerdietara bi sailkatuko dira: epaimahaiak aukeratzeko duen antzezlan eta ikusentzulegoak aukeratzeko duena. Lehian ariko diren bost antzezlan horiez gain Asvin Lopezek saiorako bereziki prestatutako emanaldia egingo du.

Parte-hartzaileak hauek izango dira: Tripotx taldeak *No me llames maricon* antzeztuko du; Argik *Enfrentadas*, Geno Salinasek *La actriz de reparto*; Hernanikoak *La mochila* eta Magik Teatrok *La muerte del corredor*.

Drama eta komedia

Tripotx taldea Joseba Maiza tolosarrak, Ander Malbadi albizurtarrak eta Iñigo Penagarikano berastegiarrak osatzen dute. Hiruak Txotx taldeko kideak dira eta lehiaketa honetarako espreski prestatu dute *No me llames maricon* lana. Joseba Maizak azaltzen duenez, gazteleraz eta euskaraz da drama ukituko antzezlan. «Lehiaketaren kartela ikusi genuen kalean eta iaz lehiaketa irabazi zutenek ere parte hartzeko esan ziguten», azaltzen du Maizak. «Animatu egin ginen. Gai bat

entsatu nuen eta taldekideei aurkeztu. Ideia gustatu zitzaion eta lehiaketan izena eman genuen». Obran mutil baten gorabeherak kontatzen dira. Mutil horrek ez du oso argi homosexuala ote den eta horren inguruan garatzen da antzezlan.

Geno Salinas Idiazabalgoa da eta Tolosako Kultur Etxeko antzerki tailerrean parte hartzen du. Tailerreko irakaslea den Elena Aranbarrik animatu zuen lehiaketan izena ematera. «Monologo bat egingo dut, komedia ukituko», azaldu du. «Taldekideek bategen sari bat jasotzen du bizitza oso lanagatik eta memento hori aprobetxatzen du antzezpeneraren inguruko guztiari kritika egiteko». «Ilusioz» dagoela dio Salinasek eta jende aurrean aritzeko esperientzia bezala hartuko du biharko emanaldia.



Pasa den astelehenean egin zuten lehenengo entsegua. HITZA

Konpartsako entseguak martxan jarri dituzte

Villabona » Lehenengo entsegua astelehenean egin zuten; egun horrez gain larunbatetan ere entseguak egingo dituzte.

duko da dantzarien izen-emate epea eta azken eguna hilaren 14a izango da. Danborradan edo per-tonai bezala parte hartu nahi dutenek ere irekita dute izen-ematea, horretarako dantzarien entsegetara gerturatu besterik ez dute.

ERREDAKZIOA

Villabonako Santio festetarako antolatzen ari diren Konpartsarekin lotuta, astelehenean burutu zuten iñude eta artzainen lehen entsegua eta antolatzaileen esanetan «hasiera polita izan du». Dagoeneko 120 dantzarik izena eman dute eta kopuruak gora egingo duela espero dute hurrengo asteetan, izan ere beste bi astez irekita mantent-

Azpimarratu antolatzaileek bigarren entsegu eguna ezarri dutela dantzariarentzat. Honela asteleheneko entseguaz gain (20:30etik 21:30era), larunbatetan ere izango da aukera (12:00etatik 13:00etara) Txermingo Ikastolako ganbaran. Larunbatetako entsegu eguna astelehenean joateko arazoak dituztenentzat dago zuzenduta. Halere, nahi duenak bi entsegetara joateko aukera du ere.

Kale Nagusiaren egoera aztertuko duela esan dio Diputazioak Udalari

Irura » Astelehenean auto batek haur bat eta bere ama harrapatu zituen Kale Nagusiko zebra bide batean.

I. GARCIA

Astelehen arratsaldean auto batek haur bat eta bere ama harrapatu zituen Kale Nagusian, udaletxe atzean dagoen zebra bidean. Auto hori gelditu egin zen, baina atzetik zetorrena ez zen gelditu eta atzetik jo zuen eta honek haurra eta bere ama harrapatu zituen. 24 ordutan behaketan egon dira bi zaurituak eta ezer larririk ez dutela ikusi dute. Istripuaren ondoren, Mari-mi Ugalde alkatea Diputazioarekin harremanetan jarri zen eta



Oinezko bat haur batekin istripua gertatutako zebra bide baten pasatzen. I. GARCIA

bertatik azaldu zioten Kale Nagusiaren egoera lehenbailehen aztertuko dutela.

«Gure aldetik semaforoak jarrezko eskatu dugu aspaldidanik», azaldu du Ugaldek. «Beraiek ere irtenbide hori aintzat hartzen

dute, baina azterketa bat egin nahi dutela esan dute». Markel Olano diputatu nagusia Iruran izan zenean ere gai hori mahai gainean jarri zuen Udalak. «Espero dugu lehenbailehen egoera konpontzea, beste ezbeharririk gertatu baino lehen».

EHNA erabilpenerako Tolosaldeko Komertzio Gida aurkeztuko dute

ERREDAKZIOA

Bai Euskal Herriari herri ekimeneko ordezkariak EHNAren erabilpenerako Tolosaldeko Komertzio Gidaren aurkezpena egingo dute bihar, 20:15ean, Villabonako Gurea zineman. Bertan izango dira Bai Euskal Herriari ekimeneko kideak, Udalbiltzako ordezkariak eta EHNAren erabilpenerako

Komertzio Gidari beren babesa agertu nahi izan dioten hainbat herritar ezagun.

Tolosaldean hiru gida kaleratuko dituzte eta hau izango da lehenena. Bertan, Aduna, Amasa-Villabona, Anoeta, Asteasuko eta Zizurkilgo komertzioak biltzen ditu, hau da, guztira 80 komertzio baino gehiago barnebiltzen ditu.

txokoa h

emanaldirako
2 sarrera pare zozketan

Irabazleak:

- Mari Jose Amonarraiz (Tolosa)
- Sagrario Sorondo (Irura)

Ostirala, apirilak 4 • 20:30ean
Tolosako Leidorren

Soledad Ruz...

FLAMENKOA



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

Ikaztegieta Udalak taberna-jatetxea, denda eta ostatu egokitu ditu udaletxearen beheko partean, alokatzeko asmoz. Baldintzak boletín ofizialean apirilaren bukaeran agertuko dira.

Oinarrizko zerbitzuak

NEREA URBIZU

Ikaztegieta «herriari emango zaion zerbitzu berria» jarriko dute martxan: orain 10 urte inguru herrian zegoen denda barkarrak atekatu zituen. Ikaztegieta taberna pare bat izan du orain gutxi arte (garai batean hiru ere izan ziren aldi berean). Bada, Udalak udaletxearen azpiko lokala egokitu berri du duela urte batzuk bertan zegoen taberna berriz martxan jartzeko, eta aldi berean, bertan ere, denda bat. Honen gainean, lau logela ere egokitu dituzte.

Eneritz Maiz alkateak argibideak eman ditu: «Lokala alokatu nahi dugu, eta alokatzeko duenak bere gain hartuko du taberna-jatetxea, denda eta goiko aldean dauden lau logelak». Asmoa, Ikaztegieta festetarako irekita egotea litzateke, abuzturako, beraz.

Baldintzen artean, euskara

Lan hau hartzeko interesa dutenen artean, Ikaztegieta Udalak euskalduna izatea eskatuko luke, «eta gainera herritarra balitz, hobeto». Hiru lanak hartuko litzateke bere gain, hau da, taberna-jatetxea, ostatu eta denda bera.

Hala ere, «jakin badakigu lan honetarako gogoar behar dela». Hartzaileek, behar izanez gero, udaletxean bertan dagoen etxebizitzan bizitzeko aukera izango lukete. Dena dela, informazio gehiago izateko, eta lokala bera ikusteko ere, udaletxera joanda egin daiteke.

Ezohiko bilkura batean (apirilaren erdialdean) pleguak aterako dituzte eta onartu ondoren boletín ofizialean argitaratuko dituzte hila batez. «Aurkezten diren proposamenen artean Udalak erabakiko du zein zati izango den lanpostua».

Taberna baino gehiago

Udaletxeak hartzailearekin tratuak gero egingo litzuzke, baina «gure asmoa, langilea inplikatzeko da, hau da, ez dugu taberna hilik nahi. Tabernariaren aldetik jarraera hori ikusiko bagenu puntuak irabaziko litzuzke. Udalak antolatu nahiko litzuzkeen ekintzak, edo berari ere otu izaten zaizkionak interesgarriak lirateke». Azken batean, «giro bat sortu nahi dugu». Maizek, udalkideekin batera, tabernan bideo emanaldiak, txapelketak edo beste hainbat ekintza egiteko lekua izatea ere nahi du.

Horrez gain, jubilatuentzako

txoko bat ere nahiko lukete jatetxeko alde batean: «Gaur egun kiroldegian dute lokala, baina baztertu xamar dago. Honela, herritarrekin harreman handiagoa izango lukete ostatuan», eta herrigunean egongo lirateke, beste herrietan ere egiten den bezala. Baina guztia, esan bezala, «hartzailearekin negoziatuko litzateke».

Denda, oinarrizko gaiekin

Ikaztegieta 500 biztanle inguru dauzka eta ez dute dendarik: «Erosleak Alegiara edo Tolosara doaz normalean. Herrian bertan oinarrizkoak erosteko aukera eman nahi genuen, eta herritarrek ere eskatutako zerbitzu izan da».

Jubilatuentzako txokoa egotea ere nahiko lukete jatetxeko alde batean: orain kiroldegian daude

Informazio gehiago izateko eta lokala bera ikusteko udaletxera joan daiteke

Dendak apalategi ugari dauzka eta hiru hozkailu handi: «Haragi pixka bat jartzeko, janari izeotzak, yogurtak, kontserbak, komuneko papera»... izan daitezke. Hori dendariaren arabera, noski. Helburu nagusia herritarrek oinarrizko zerbitzu behar duenean autoa hartu behar ez izatearena da».

40 metro koadro ingurukoa da denda (taberna zaharraren jantokia zena da).

Jatetxea eta taberna handiak

Lehen zegoen tabernaren barra mantendu egin dute, eta lehen ondoko etxea zena bota egin dute, orain jantokia izango dena. Guztira 80 metro koadro inguru dauzka jantokia eta barrak. Sukaldea ere badu noski (barraren atzean, taberna zaharrak zuen bezala).

Ezinduentzako egokituta dago, aulkientzako aldatxoarekin, besteak beste. Oso argitsua da jantokia, dauzkan leiho handiei esker.



Dendara sartzeko tabernatik igaro behar da. 40 metro koadro inguru ditu eta guztiz hornituta dago. N.U.



Tabernako barra sarreran dago. Atzealdean sukaldea dauka, eta aurrealdean (eskuinean) ataria. N.U.

Ostatua ere bada

Taberna-jatetxearen eta denda-gainean lau logela egokitu dituzte: bi behean eta beste bigoian. Horietako bat ezinduentzako egokitu dute. «Lau logelak desberdinak dira beraien artean, altzari bereziak dituzte: honela bakoitzak bere ukuita du».

«Ikaztegieta beti dago kanpoko norbait: langileak esaterako. Beste herri batzuetara joaten dira lo egitera. Ostatu honek behar horiek bete ditzake». Logeletako giltza bezeroak hartuko luke, jabeak aldiro jaso behar izan gabe.

Aurreko legealdiko proiektua

Maizek argitu bezala, proiektua aurreko legealdian egin zen eta obrak ere orduan hasi ziren, joan den urteko martxoan, hain zuzen. «Dena diseinatuta zegoen gu sartu ginenerako, eta azken ukituak falta zitzaizkion».

Sukaldea berri da, altzariak ere berriak dira eta denda hornitu egin dute.

Tolosaldea Garatzenek bidaragarritasun plan bat egin zien eta horretan oinarrituta dago dena.



Jangela ederra dauka eta oso argitsua. Guztira, 80 metro koadro. N.U.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^º OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezuntza.net

Aurten ere abian da Tropela!

Lehiaketak sarean, euskaraz, doan eta sariekkin...

Izen ematea dohainik.
Oso onakiko gure sariekina, apiril 11, 12 eta 13an.

tropela.net

E Elkarrizketa**XABI FERNANDEZ** › Belan Europako txapeliduna

«Olinpiar Jokoetarako konfiantza eman digu»

Ibarra » Ez da gauza berria podium-aren gorengo mailatik behera begiratzea Xabi Fernandezentzat. Ea Mallorkan bezala Pekinen aukera bera duen.

ASIER IMAZ

Iker Martinezekin batera, Xabi Fernandezek (Ibarra, 1976) Europako Txapelketa irabazi berri du belan Mallorkan (Herrialde Katalanak). Atenasko Olinpiar Jokoe-tako urrea, bi mundial, hiru Europako Txapelketa,...

Dominak bildu eta bildu. Azken hau bat gehiago edo berezia izan da zuentzat?

Europako txapelketa irabaztea beti oso garrantzitsua da eta guretzako poztasun handia izan da. Iragan urtean irabazi genuenak baino balore handiagoa duela uste dut aurten irabazi dugun honek, Txinan jokatu diren Olinpiar Jokoa abuztuan izango dira eta konfiantza asko ematen digu garaipen honek. Nahiz eta Europako Txapelketa izan, irekia da eta gero Olinpiar Jokoa etengongo garen

denak geunden. Jende asko azkeneko gauzak probatzen egon da eta guk berriz maila onean gaudela erakutsi digu.

Urte askotako ibilbidea egin arren, oraindik puntaren puntan.

Garrantzitsua edo politena hori dela uste dut. Irabazi genuen lehen Europako Txapelketa 2002. urtean izan zen eta orain, sei urte beranduago, berriz ere irabazi egin dugu. Urte asko dirapunta-puntan eta hori oso zaila izaten da. Jende askok izan ditubi urteko denboraldi onak, baina ondoren berriz ere behar izaten dira. Askok kostata eta lan asko eginda baina oraindik goian gaude eta hori oso ondo dago.

Gorputza sasoiaren mantentzea ez da erraza izango horrenbeste denboran.

Beste kirol guztietan bezala dela



INIGO TERRADILLOS

iruditzen zait. Bai gorpuzkerak, bai indarrak eta baita pisuak ere garrantzi handia dauka belan. Alde hortatik zorte handia dauka gu bai Ikerrek eta bai nik beste kirol asko egiten ditugulako eta beti sasoi onean egon geralako. Bestalde eragozpen txiki bat ere badugu biok, astun xamarrak gara eta beti pisua galdu nahian gabiltza. Hala eta guztiz ere aurten ondo gaudela uste dut.

Europako Txapelketan oso ondo hasi zineten baina amaieran larri.

Europako Txapelketa baino aste-bete lehenago, Europako zirkuitoko beste regata bat izan genuen Mallorkan bertan. Orain ibili dugun material berdina erabili genuen baina orduan ez ginen oso

eroso ibili eta seigarren bukatu genuen. Europako Txapelketan, txalupan aldaketak baino pixkat konzentratuago edo gogo gehiagorekin hasi ginen. Hasiara batetik oso indartsu hasi ginen, eta hiru egunetan abantaila oso polita lortu genuen, 24 puntu ingurukoa. Dena oso ondo zihoan eta eroso irabaziko genuela zirudien, baina laugarren eguna oso txarra izan genuen eta irabazitako abantaila guztia galdu genuen. Azkenean larri irabazi dugu, bi punturen aldearekin. **Azken eguna nola oroitzen duzu?** Regata bakarra zegoen eta irabaztera irten ginen. Arriskatzera irten ginen eta podium-a jokoan jarri genuen une batean baina ongi irten zitaigun.

Herritar baten aurka 6 urteko espetxe zigorra eskatu du Fiskaltzak

Lizartza » Akusatua herriko emakume bat da eta zinegotzi bat ikurrinaren makilaz kolpatu zuela aipatu du Fiskaltzak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Fiskaltzak 6 urteko espetxe zigorra eskatu du Lizartzako emakume baten aurka, 12.000 euroko isun ekonomikoarekin batera, PPren udal ordezkarri bat erasotzea egotzita.

Fiskaltzaren esanetan, akusatua «PPren zinegotzi bati kolpe bat eman zion buruan ikurrina baten makilaz». Fiskaltzak «bekaina igurtzi» egin ziola aipatzen du ondoren, «bizkarzainak eraso ekiditea lortu baitzuen, zinegotziak zauririk gabe irten zelarik».

Ustezko gertaerak 2007ko irailaren 6an kokatzen ditu Fiskaltzaren idatziak, 20:45ean ermitaren kanpoaldean.

«Agintearen aurkako eraso»

Fiskaltzak gertaerak «agintearen aurkako erasotzat» jo ditu. «Ermita atarian akusatua mehatxuka eta jarrera erasotzailean aurkitzen zen, txakurrak eta faszistak deituz zinegotzietan». Hauek «bizkarzainak inguratutik irten ziren, joaterakoan euren autoa kolpatua» izan zela gaineratuaz. Ondorioz, «6 urteko espetxe zigorra eta 12.000 euroko isuna» eskatu ditu emakume lizartzararen aurka.



Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eskualdean

KULTURA » Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen atzo mundu guztian Hans Christian Andersen idazlearen jaiotza oroitzeko. Eskualdeko hainbat herritan ekitaldi ezberdinak antolatu zituzten haurrentzat. Tolosako Haur Li-

burutegian Judith Huegun, Villabonako Fleming eskolan Idoia Sanchez eta Alegiako liburutegian Amaia Zinkunegi ipuin kontalarien emanaldiak antolatu zituzten haurrentzat. Tolosan horretaz gain, liburu bat maileguan hartzen zuen

haurrari piruleta bat oparitu zioten atzokoan. Haur Liburuaren Eguna atzo zela kontutan hartuta, atzotik apirilaren 23ra arte, *Mari Titare* ipuinari buruzko erakusketa ipini zuten ikusgai Haur liburutegian bertan. A. IMAZ/N.URBIZU

Lillok ordezkatu du Eizmendi Realean entrenatzaile bezala

Futbola » Atzo eguerdian Iñaki Badiolak eta Jose Ramon Eizmendik bilera egin ondoren eman zuten jakitera berria.

Iñaki Badiola Realeko presidentek eta Jose Ramon Eizmendik atzo eguerdian bilera egin zuten, eta orduan jakinarazi zioten tolosarrari klubeko buruak erabakia entrenatzaileari. Bilera honen ondoren, Badiolak iluntzeko 20:00etan prentsaurrekoa eskaini zuen.

Jose Ramon Eizmendi
Urte hasieran hartu zuen kargua Jose Ramon Eizmendik, Badiolak presidente postua lortu zuenean,

hain zuten, urtarrilaren 3ko hauteskundeetan. Reala B entrenatzen zetoarren teknikaria, eta atzo lehendakariak horra itzultzeko eskaintza egin zion.

Realaren egoera
Azkeneko hiru norgehiagokak galdu egin ditu Realak, eta laugarren postuan doa Espainiako Bigarren A Mailan. Beraz, igoera postutik hiru puntutara dago, liga amaitzeko 11 jardunaldi besterik gelditzen ez direnean. Igandean

Donostian jokatu du Realak Alacanteko Hercules taldearen kontra.

Lillo aurtengo denboraldian Realak izanen duen hirugarren entrenatzailea da. Lehenengoa Chris Coleman galestarra izan zen eta honen ordezkari Jose Ramon Eizmendi ikaztegitarra aukeratu zuten.

Realaren zuzendaritza teknikoan Lorenzo Juarros ibartarra eta Iñigo Dominguez tolosarra daude. Beraiekin batera Alfredo de Casti-

llo dago zuzendaritzan. Azken hau eskualdekoa ez den arren, Lillorenkin bada eskualdeko 3 pertsona izanen lirateke Realeko zuzendaritza teknikoko kide, Jose Ramon Eizmendi kontutan hartu gabe.

Lilloren esperientzia
Juanma Lillo estatu espainiarren hainbat talde entrenatu ditu 1995an hasi zenetik. 1995-1996ko denboraldian U.D. Salamanca taldea entrenatu zuen; 1996-1997ko denboraldian Real Oviedo C.F., 1997-1998.a eta 1998-1999an C.D. Tenerife'eta 2000-2001ean Zaragoza C.D.

Futbol talde hauetaz gain, Ciudad de Murcia, Dorados de Sinaloa eta Terrasa taldeak ere entrenatu ditu.

ERREDAKZIOA

Juanma Lillo tolosarra izango da Realeko entrenatzaile berria. Lillok (Tolosa, 1965), beraz, Jose Ramon Eizmendi ikaztegitarra ordezkatu du hemendik aurrera.

Etzi hasiko da sendabelarren inguruko tailerra

Leitza » Aurrerako etxeko komisioko antolatu du bi larunbatetan emanen den tailer hau, eta 15 pertsonen izena eman dute.

NAIARA GARZIA

Datorren larunbatean eta hurrengoan Aurreran sendabelarren inguruko tailerra egingen dute. Taileraren Aurrerako etxe-batzordearen ideia izan zen, eta bertatik azaldu dutenez, 15 lagunek eman dute bertan parte hartu ahal izateko izena.

Tailerak, Mai Etxeberriaren eskutik

Mai Etxeberria izanen da bi larunbat hauetan tailerra emanen duena eta antolatzaileek azaldu dutenez, materiala dena berak erama-



Tailerra Aurreran emanen dute, 2 larunbatetan. N. GARZIA

nen du. «Tailer praktikoa izanen da, gehienbat», dio Leire Genua antolatzaileetako batek. Etxeberriak, besteak beste, txanpua egiten, aho-elixirra, masajerako olioia eta horrelakoak egiten erakutsiko du.

'Hauts alaiak' egingo dituzte, ultzetarako edota digestioa errazteko onuragarriak dira

Genuak azaldu duenez, «zenbait gauza sendabelarrekin egingen dira, aloezko krema, esaterako. Beste gauza batzuk, berriz, olio esentzialekin.

Honetaz gain, *hauts alaiak* izenekoak ere egingen dituzte. «Hauek urdaileko ultzerarako, gastroenteritisarako eta digestioa errazteko onuragarriak dira».

Aho-elixirra, berriz, kariesa eta ahoko gaitz batzuk saihesteko onuragarria da.

Aipatutako gauza hauek egitea aurreikusita dagoen arren, denbora ematen badie eta jendeak nahi izanez gero, beste zerbait ere egingen dutela azaldu dute. «Aurreran antolatzen dugun aurreneko aldia denez, zerbait merkea eta arina egin nahi genuen, jendea animatzeko». Aurrerako bazkideek 20 euro ordaindu dituzte eta bazkide ez direnek, 30.

Egoitzaren erabilera

Genuak adierazi duenez, Aurrerako etxe-batzordearen helburuetako bat etxeari erabilera ematea da. «Gehienbat taberna erabiltzen da, eta bestelaz egoitzaren erabilera gehiegi ematen, etxea handia izan arren eta hori da guk bultzatu nahi duguna».

H Hilberriak

PATXI OSTIZA GOIKOETXEA
JAUNA
Atzo hil zen 81 urte zituela
Bere emaztea: Josefina Goikoetxea; alaba: Silvana; osabak: ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
«Bihotzean min dut, min etsia negar ixila darion mina»
Ondo fanaita.
Bere hileta elizkizuna OSTEGUNEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN FRANTZISKO parroki elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.
Tolosan 2008ko apirilaren 3an
Helbidea: Laskurain 11, 5 B
Oharra: Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongoda Tanatorioan egingo da, ostegun goizeko 10:45ak arte.



MARIA TELLERIA BERASATEGI
(Asier Imaz euskal presoaren amona)
(Joxe M^a Telleriaren alarguna)
Atzo hil zen, 92 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Haren animaren zuzendaria: Bittorio Zabalgogea; seme-alabak: Joxe eta Enkarni Azurmendi, Beatriz eta Inazio Imaz, Juan (†); bilobak: Zelia eta Iñaki, Karlos eta Leire, Asier eta Loinaz, Estitxu, Iker eta Hiart, birlobak: Ane, Nerea, Arkaitz, Ekain, Beñat; koinata: Felisa; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte Gaur, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPI TERDIETAN, SAN MARTIN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Helbidea: Olan auzoa 6, 3.
Oharra: gorpua Beasaingo Goierni Beilatokian egingo da
ZEGAMA 2008ko apirilaren 3a



JOAKIN ZUBELDIA MANZISIDOR
Orain arte mendian jarraitu diagan bezala, aurrerantzean ere, hire txapel gorriaren atzetik izango gaituk
ZUMAIA 2008ko apirilaren 3a
INDA MENDI Mendi Elkarte



JOAKIN ZUBELDIA MANZISIDOR
Algorri eta gure mendiak ilun eta triste daude Dieciochoren begietako distira aurkitu gabe gure maisua eta laguna mendian, bizitzan trebe abertzalea, eskuzabala, umore onaren jabe agur eta ohore Joakin betiko gurekin zaude
Zuri esker mendia ezagutu eta maitatzen dugunok
ZUMAIA 2008ko apirilaren 3a



JOAKIN ZUBELDIA MANZISIDOR
Joakin ez adiorik Azken agurrean Nola itsas azpian Baso ta larrean Zure aztarnak utzi Ditu zu lurrean Orain hor zaude izar Guztien aurrean Euskaldunen zeruko Mendi gailurrean
Gariren koadrila
ZUMAIA, 2008ko apirilaren 3a





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tososaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tososaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tososaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alkiza.** Maiatzaren 11n Erriopeko VI. Mendi Ibilaldia izango da Alkizatik abiatuta. Bi neurri: 48 km eta 25 km. Izen-ematea, 943 690235an edo Alkizako plazan egunean bertan, 05:00etan.
- **Amezketza.** Ostegunean ohiko bilkura egingo dute udaltxean. Aurtengo kultura arloko dirulaguntzak erabakiko dituzte bestean artean. Batzordeen informazioa ere emango dute.
- **Tolosa.** Tolosa Kup txapelketa antolatzen bileran 18:00etan Kultur Etxean. Joxelu Andueza gazteria zingotzia eta Nerea Cereceda gazteria teknikaria izango dira bileran, eta bertara agertzeko deia luzatu nahi diete parte hartu nahi duten guztiak.
- **Tolosa.** Apirilko 11 film ikusteko abono salmenta (6 edo 11 euro) Leidorren, gaur 17:00etatik 21:00etara eta bihar 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- **Tolosa.** Amaia Agirre billabonatarra, Larraulgo Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño leitzarrek beren afaria antolatu du Hitzak bere 5. urteurrena ospatzeko, Oargi elkartearen. Sarrerak salgai Zizurkilgo Aurrera tabernan, Tolosako Raku eta Denak-en, Leitza Torre Antolatzailea: Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza.
- **Tolosa.** Iturriz elkarteak Peñiscolar irteera antolatu du maiatzaren 18tik ekainaren 1era 410 eurotan (bazkide ez direnek 415). Informazioa, bulegoan 943698330.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkarteak irteera antolatu du Arrikruzko bazuloetara, Oñatin, hilaren 8rako, 28 eurotan (ez bazkideek 31). Txartelak, bulegoan daude salgai.

Erakusketak

- **Tolosa.** *Marierpuru* ipuinari buruzko erakusketak Haur Liburutegian, ikastetxeetan egindako marrazkiak.

Zinema

- **Tolosa.** *El bosque del luto* filma (JBA) Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Astebete zuen argazkiak bidaltzeko

JON ANDER ETXARRI (BARAIBAR) ●
Europa aldera egin du txango Jon Ander Etxarririk. Hauxe kontatu digu bere bidaiaren inguruan: «Bergen Belsen kontzentrazio kanpoa (Alemania). *Isiltasunaren etxea*. Hilobi arruntz beteta zegoen zelaia: 5.000 gorpu, 1.000 gorpu... Bertan bakarrik 40.000 gorpu inguru omen daude 2. Munduko Gerran eraildakoak. Horien artean Anna Frank. Isiltasunaren etxean sarztea lasaitasuna eta lotsaren arteko nahasketa sentitzea zen. Etxe honetan hots bat egitea, iraintzea zela iruditzen zitzaizun».



GONTZAL (VILLABONA) ● Batzuk Europa aldera eta beste batzuk etxean geratzen dira. Baina hau ez da argazki kamera etxean uzteko arrazoia. Gontzalek berarekin eraman eta argazki eder hau ateratu zuen: «Aste Santu honetan Araba Tour egin dugu eta egia esan zoragarriak dira gure bazterrak, gure ardoak eta argazkian bertan ikus dezakezuen Gujuliko ur jautzia. Pena merezi du gurturaztea, gora gu eta gutarrak!»

A Agurrak



Urte askoan!

Garazi Beloki Tobar (Alegia).
Gaur 5 urte. Zorionak eta muxuak Amalur eta familiaren partetik.

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

hitza^k 5 urte

h h **JAIALDIA** h h
Apirilak 5 • Larunbata

hitza^k
TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

17:00:
Tolosako Beotibarren
Xurdirin
kontzertua.
Sarrerak: Tolosako HITZAren
bulegoan salgai,
harpidedunentzat **3 euro**,
besteentzat **5 euro**.



18:00:
Mus Txapelketa azkarra

Tolosako Oargi Elkartearen. Irabazleentzat bazkaria edo afaria Tolosako Isastegi sagardotegian.
Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman beharko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

21:00:

Bertso afaria
Tolosako Oargi Elkartearen,
Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu
eta Diego Riaño bertsoariak.

Txartelak salgai Zizurkilgo Aurreran, Tolosako Raku eta Denak eta Leitza Torre tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.

Afalostean poteo herrikoia, trikitez lagundurik.